

JUAN JOSE ARAOLAZA. AUBIXA aterpetxearen eragilea.

“Papera eta kartoia batuz eta salduz lortu genduan Aubixa konpontzeko dirua”

Juan Joserena izan zen Aubixa aterpetxea prestatzeko ideia. 1970 urtearen bueltan, 30 urte zituela, Iruiturra joan zen egun batean; Aubixa baserria ikusi eta “horixe dok guretzako modukua!” pentsatu zuen. Pentsatu eta egin. Aubixa idealismo askorekin ateratako proiektua izan zela esan digu. Baina idealismoak ez ziren amets hutsak izan, eta lan asko egin ostean, Aubixa ametsa izatetik errealtate izatera pasa zen. Oraindik ere bizirik dagoen errealtatea.

- Kontaiguzuzelan sortu zen Aubixa aterpetxearen ideia.

- Nik hartu-eman haundixa naukan Zarauzko ikastolako orduko zuzendarixa zen Imanol Muruarekin. Eta Zarauzko ikastoliak etxe bat zaukan Goiatzen, astebukaeretan umiak, gurasuak eta irakasliak juateko. Ni sarritan juaten nitzan etxe haretara, eta oso giro polita izaten zen bertan.

- Inbidia ematen al zizun?

- Bai, “hau Elgoibarren ere egin leike” pentsatzen naban. Eta, halako batian, Ikastolako Juntan azaldu naban ideia, eta ondo ikusi zeben. Hurrengo zeregiña ikastolako gurasuak animatzia zan. Hala, Zarauzko ikastolako irakasle lanetan ziharduten Andu Lertxundi eta Imanol Urbietak ekarri genduzan Elgoibarrera Goiatzeko etxiaren proiektua azaltzera. Jende mordua etorri zan hitzaldira eta oso ideia interesantia begittandu zitzaion jendiari. Atiak zabalik gendukazen proiektuari heltzeko.

- Baina Aubixan dezenteko obra egin behar izan zenuten, ezta?

- Bai, Aubixan ez zan inor bizi, eta obra haundixa egin bihar izan genduan. Taillatua konpondu, potzu-beltza egiñ, umien logelak prestau, dana pinttau, ... Etxe guztixa konpondu ez bagenduan ere, umiak sartzeko besteko obria egin genduan. Esan bihar da obra guztixa geuk egin genduala. Makiña bat jendek egin zaban lan Aubixa egokitzeko.

- Eta obrak egiteko dirua nondik atera zenuten?

- Benetan bitxixa izan zan dirua lortzeko egin genduana. Papera eta kartoia batuz eta salduz lortu genduan Aubixa konpontzeko dirua. Herrittarrak, dendak eta enpresak emandako papera eta kartoia batzera ertetzen genduan astein behiñ. Batzen genduana kiloka saldu eta handik ateratako diruarekin egin genduan obria. Hillabetiak eman genduzan papera eta kartoia batzen.



- Esaguzuz logeletako literak ere nondik inguratu zenituzten.

- Manolo Zabalak Pasaian desguazerako zagan itsasontzi amerikar baten burnizko literak ekarri zittuan. Zelako lana hartu zaban itsasontzittik kendu eta Aubixan jartzeko!

- Zein izan zen Aubixaren helburua?

- Aubixa ez zan, besterik gabe, egoteko leku bat. Aubixak proiektu pedagogikoa zaukan atzian. Umiak, gurasuak eta irakasliak lotzen zittuen proiektu pedagogikua, hain zuzen ere. Aubixak bere programazua zaukan, kultur jarduerak antolatzen genduzan, hitzaldixak, ikastaruak, ... ondo pentsauta egitten genduan lan.

- Zelako estimazioa izan zuen Aubixak haur eta gurasoen artean?

- Oso estimazio polita izan zaban. Jendea oso gustura juaten zan Aubixara. Zenbat jende pasau ete da handik!

Gustura sumatu dut Juan Jose, asmatu zuten sentsazioarekin. *“Hasieran behintzat bete ziran jarritako helburuak. Oso gustura jardun genduan lanian, eta giro polita sortzia lortu genduan”.*